

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAK EROSKETA PUBLIKO BERRITZAILEKO PROZESUAK EGITURATZEKO PROPOSATUTAKO ERRONKA TEKNOLOGIKOEI KONPONBIDE BERRITZAILEAK EMATEKO IDEIEN DEIALDI IREKIA (AZAROAREN 27KO 2160/2015 EBAZPENA)

FAQ:

1. Zein helburu du deialdi honek?

Osasun Sailak zein Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak sustatutako berrikuntza irekiko ereduaren barnean dago deialdi hau. Azaroaren 27ko 2160/2015 Ebazpenak zehaztutako eredu horren helburua da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuarekin lankidetzan jarduteko borondatea duten orotariko erakunde eta pertsona fisiko edo juridikoen parte hartzea, ebazpenak barne hartutako erronka teknologikoak garatzeko eta betetzeko prozesuari gehituko zaizkion proposamen berritzaileak identifikatzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak aplikatu ditzakeen erosketa publiko berritzaileko ereduak zehaztu aurretik, interesgarritzat jo da konponbide berritzaileen ideien deialdi ireki bat sustatzea, proposatutako erronka teknologikoei aurre egiteko teknologia eta konponbide interesgarriak identifikatzeko bitarteko gisa.

2. Zer ez da konponbide berritzaileen ideien deialdi irekia?

Konponbide berritzaileen ideien deialdi irekia...

- EZ da ideien lehiaketa bat.
- EZ da I+G+B proiektuak diruz laguntzeko deialdi bat.
- EZ da kontratatzeko prozedura ireki bat.

3. Zer da erosketa publiko berritzailea?

Erosketa publiko berritzailea, eskariaren arabera berrikuntza-politikaren tresna den aldetik, sektore estrategikoak indartzeko ekimena da, herri-administrazioen erosketa-jardueraren bitartez garapen teknologikoa eta ondasun nahiz zerbitzu berritzaileak eskuratzea sustatu nahi duena.

Erosketa publikoen gaineko ikuspegi berri hori funtsezko tresna izango da enpresa berritzaileak sendotzeko, sektore pribatuak administrazioaren proiektu estrategikoei balio erantsi handiagoko konponbide-proposamenak egitea sustatuko duelako.

Erosketa publiko berritzaileak helburu hauek ditu:

- Zerbitzu publikoak hobetzea ondasun edo zerbitzu berritzaileen bitartez.
- Enpresa-berrikuntza sustatzea.
- Berrikuntza nazioartekotzea sustatzea, tokiko merkatu publikoa erabiliz merkaturatze- edo erreferentzia-bezero gisa.

Erosketa publiko berritzailearen esparru juridikoa zehazten du, nagusiki, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzekoak, eta ekainaren 1eko 14/2011 Legeak, zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruzkoak, arlo horretako Europako zuzentarauak jasotzen dituenak¹.

Erosketa publiko berritzaileak 2 jarduera-modalitate barne hartzen ditu: erosketa komertzialak eta aurrekomertzialak.

- Erosketa komertzialen barnean dago **teknologia berritzailearen erosketa publikoa**; hau da, existitzen ez den eta arrazoizko denbora-tarte batean gauza daitekeen ondasun edo zerbitzu baten erosketa publikoa. Erosketa horretarako teknologia hobetu edo berria garatu behar da, eroslearen eskakizunei egoki erantzun ahal izateko. SPKLren 11.c) artikuluan dago jasota.
- **Erosketa publiko aurrekomertziala**: erosle publikoak ezin ditu berak eskusiboki erabiltzeko erreserbatu kontratatzen diren I+G zerbitzuen emaitzak, merkatuan eskura daitezkeen konponbide berritzaileak baino hobekak garatzeko beharrezkoa den I+Gri loturiko arriskuak eta etekinak enprekin partekatzen dituelako. SPKLren 4.1.r) eta 13.2.b) artikuluek arautzen dute.

¹ 2014/18 Zuzentaraua, 2004ko martxoaren 31koa, obra, hornikuntza eta zerbitzuetarako kontratu publikoak esleitzeko prozedurak koordinatzeko. Otsailean onartu zen erosketa publikoaren arloko Europa-mailako lege-pakete berria (23/, 24/ eta 25/2014 Zuzentarauak, transposizioa egiteko epea 2016ko apirilaren 18an amaitzen zaiena).

4. Non aurki dezaket erosketa publiko berritzaileari buruzko informazio zehatza Estatuan?

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren webgune ofizialan, <http://www.mineco.gob.es>, Erosketa Publiko Berritzaileari buruzko informazioa eskuratu dezakezu, hala nola «Erosketa Publiko Berritzaileako 2.0 Gida»:

<http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.7eeac5cd345b4f34f09dfd1001432ea0/?vgnextoid=281c12c94d364410VgnVCM1000001d04140aRCRD>

<http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.8ce192e94ba842bea3bc811001432ea0/?vgnextoid=8108c3dad5fa2310VgnVCM1000001d04140aRCRD&vgnnextchannel=d7e6c3f020682310VgnVCM1000001d04140aRCRD>

5. Zer alde dago «elkarrizketa teknikoaren» eta «lehia-elkarrizketaren» artean?

Elkarrizketa teknikoa kontratua prestatzeko jardueretako bat da, esleitzzaileak, hala nahi izanez gero, helburuko konponbideen izaera berritzailea, premien berezitasuna edota bestelako arrazoi justifikaturen bat dela medio erabili dezakeena, baldin eta aholkularitza horren xedea ez bada lehiakortasuna eragozte.

Oso bestelako gauza da lehia-elkarrizketa, SPKLTBk (Sektore Publikoen Kontratuen Legearen Testu Bategina) arautzen duena. Horretan, parte-hartzaileek ez dituzte esleitzzaileak kontuan hartzea nahi luketen ideiak eta eginkizun- edo errendimendu-zehaztapenak proposatzen, baizik eta konponbideak, kontratuzko prestazioen proiektu osoak direnak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak sustatutako konponbide berritzaileen proposamenak helarazteko deialdia elkarrizketa teknikoen motakoa da, eta, zehazki, kontratazioen definizio-faseari dagokio.

Hori horrela, eragile publikoen eta pribatuen parte-hartzea sustatu nahi da, sektore helduetako teknologia eta konponbide interesgarriak osasun-sektorera egokitu eta bertan aplikatzeko.

Horrenbestez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak proposatzen duen konponbide berritzaileen proposamenen deialdia merkatuarekin egindako «elkarrizketa teknikoa» da. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak prozedura hori hautatu du Erosketa Publiko Berritzailearen prozesua egituratzen hasteko azaroaren 27ko 2160/2015 Ebazpenean argitaratutako erronka teknologikoen esparruan.

6. Nork har dezake parte deialdian?

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuarekin lankidetzan jarduteko borondatea duten orotariko erakunde eta pertsona fisiko edo juridikoen parte hartu dezakete deialdi honetan, osasunaren esparruko erronka teknologikoen definizioa, irismena, garapena eta berrikuntza gauzatzeko.

Horrenbestez, deialdiaren helburua da erronka teknologiko horiek garatzeko eta betetzeko "ezagutza-ekarpenak" egin ditzaketenen parte hartzea.

Kontratazio-fasean, SPKLTB onartzeko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 54. artikuluan ezarritako gaitasun-baldintzak betetzen dituzten bertako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoen bakarrik parte hartu ahal izango dute.

7. Non aurkitu dezaket erronka teknologikoei buruzko informazio zehatza?

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean ([gune berriaren URLa adierazi beharko da hemen](#)) deskargatu ahal izango dira ebazpenean argitaratutako erronka teknologikoei buruzko alderdi espezifikoagoak, proiektuak aurrera egin ahala.

8. Deialdiaren funtzionamenduari buruzko kontsultak egin daitezke?

Prozedurari buruzko galderak egin daitezke helbide elektroniko honen bitartez:

EPBbulegoa.oficinaCPI@osakidetza.eus

Ez da informazio gehigarririk eskainiko erronka teknologikoei buruz.

9. Zenbateko zehaztasun-maila izan behar du ideia batek, kontuan hartuko bada?

Idea bat kontuan hartzeko, gutxienez, ideia berritzaileen eskabide-inprimakiko eremuetan adierazitakoak bete beharko ditu.

- Proposamen-egilearen datuak
- Proposatzen den konponbidearen deskribapen laburra (funtzioak zehaztuta)
- Justifikazioa
- Ekarpen teknologiko berritzailea
- Proposatutako iraunaldia
- Proposatutako konponbidearen uneko garapen-maila
- Eskaintzen duen hobekuntza arlo ekonomikoan, arlo soziosanitarioan, antolakuntzan, etab.

- Proposamenak osasun-sistema publikoari, erabiltzaileei eta gainerako eragileei ekarriko dizkien onurak
- Prozesua beteko denaren berme teknikoak
- Dagozkion legedi eta arauak
- Emandako datuak erabiltzeko baimena
- Nahitaezko adierazpena (ustiapen-eskubideak eta proposamenen erabilera)

10. Erantzungo dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak nire proposamenari?

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak ez du banakako erantzunik emango proposamenen balorazioari buruz. Mezu elektronikoa bat bidaliko da, proposamena kontuan hartu den edo ez adierazteko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak egunean jarriko du proiektuei buruzko informazioa, proposamen aztertu ondoren, eta zentzuzko epe bat igaro ostean.

11. Non emango da argitara erronka teknologikoen definizioan egindako aurrerapenei buruzko informazioa?

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak, dei daitezkeen kontratazio-prozeduretan gardentasuna eta parte-hartzaileek aukera berdinak izatea xede, argitara emango du erronka teknologikoen definizioan egindako aurrerapenei buruzko informazioa.

Erronka teknologikoa zehaztu ahala, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko taldeen barne-lanaren eta interesgarritzat jotako konponbide berritzaileen proposamenen bitartez, «**Aurrerapen-mailaren fitxak**» sortuko dira, inola ere ez dituztenak esplizituki adieraziko deialdiko parte-hartzaileek proposatutako konponbideak.

Fitxa horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean eskura egongo dira ([webgune berriaren URLa](#)).

12. Zertarako erabiliko ditu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak jasotako proposamenak?

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak barne-xedeetarako erabiliko ditu jasotako proposamenak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak berak zehaztutako azken konponbideak argitara emango ditu. Horretarako, konponbide berritzaileen ideia-deialdi irekiaren esparruan bidalitako proposamenak erabili ditzake edo ez.

Konponbide berritzaileen ideia-deialdi irekiaren esparruan bidalitako proposamenen edukiek erronka teknologikoen definizio-prozesura mugatutako erabilera izango dute bakarrik, eta hala zehaztuta egongo da erosketa publiko berritzailearen araberako kontratazio-prozeduren baldintza-agirietan.

13. Proposatutako ideia nirea denez, lehentasuna izango dut etorkizuneko kontratazioetan?

Ez. Proposamenaren egilea izateak ez du inolako eskubiderik ematen proposatutako ideiak izan dezakeen garapenaren gainean. Konponbide berritzaileen proposamen-deialdiaren prozedura bera da etorkizuneko kontratazioetako parte-hartzaileen «tratu-berdintasunaren» berme, baina ez die inolako lehentasuneko eskubiderik ziurtatzen ideien proposamenen egileei.

Deialdian parte hartzea, parte-hartzaileekin hitz egitea edo harremanetan jartzea edo informazio-trukeak ez dira bazterketa ezaren eta gardentasunaren printzipio komunitarioen arau-haustetzat hartuko, eta ez dute lehia eragozteko edo mugatzea eragingo, ezta abantaila bidegaberik edo eskubide eksklusibo finkorik sortuko ere kontratazio-prozeduretan.

Konponbide berritzaileen ideien deialdi irekiaren esparruan aurkeztutako proposamenen konfidentzialtasuna gordeko da.

14. Lehendik patentatutako konponbideak aurkeztu ditzaket?

Proposamenak ez dira merkataritza-patenteen, copyright-aren edo bestelako egile- edo enpresa-eskubideen mende egongo, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak edo bere enpresa kolaboratzailearen batek etorkizuneko proiektuetan nahieran erabiltzea eragotzi dezaketen aldetik. Alabaina, merkaturatu gabeko patenteen mendeko proposamenak aurkeztu ahal izango dira, proposamenaren egileak hori zehaztuta.

Edonola ere, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren etorkizuneko kontratazio-prozesuen zehaztapen teknikoak betekizun funtzionalen araberakoak izango dira, eta ezingo ditu mugatu patente batek, betiere lehia-printzipioak betez.

15. Noiz joko dira betetzat erronka teknologikoak?

Erronka teknologikoa betetzat joko da kontratazio-prozeduraren lizitazioa egiten den unean.

Horren berri emango da webgunearen bitartez, eta EHAAn argitaratuta.

16. Noiz zehaztuko da proposatutako ideiarene ustiapen-eredua?

Lizitazioa egiteko garaian, proposatutako ideia ustiatzeko ereduaren baldintzak zehaztuko dira pleguan.